



## INFORMAZIO OHARRA

# Euskal Herriko egungo zaintza eredu aurrera egiteko erronkak eta proposamenak

- *Euskadi, Nafarroa eta Ipar Euskal Herriko ongizate eta gizarte politiken arloetako profesionalek erronka eta proposamen zehatzak planteatzen dituzte egungo mugak gaindituko dituen zaintza eredu baterantz aurrera egiteko*
- *Eusko Ikaskuntzak antolatutako Euskal Herriko lurraldeetako Zahartzeari eta Mendekotasunari Arreta Eskaintzeari buruzko Mugaz Gaindiko II. Mintegiaren bigarren jardunaldia lehen pausoa da gizarte-azterketa eta -berrikuntzarako lurraldearteko laborategi bat eratzeko*

**Donostia, 2021eko maiatzaren 21a.** Zahartzeari eta mendekotasunari arreta emateari buruzko [Mugaz Gaindiko II. Mintegiaren bigarren saioa](#) izan da gaur, maiatzak 21, ostirala. Hitzordua Eusko Ikaskuntzak 2019tik aurrera Euskadin, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian mendekotasunaren eta zainketen errealitateak ezagutzea sustatzen duen lan-programan sartzen da, ongizatearen eta politika publikoen ereduaren gizarte-azterketa eta berrikuntzarako lurraldearteko laborategi bat eratu aurretik.

Mintegiaren lehen egunean, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroako Foru Komunitatean eta Pirinio Atlantikoetako Departamentuan mendekotasuna duten adinekoentzako arreta-sistemei buruzko azterketa aitzindaria aurkeztu zen. Programako talde zientifikoak Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin egindako [Zahartzea eta mendekotasunari arreta Euskal Herriko lurraldeetan](#) txostenak eredu desberdinen arteko desberdintasun eta antzekotasunen, erronken, mugen eta ahalmenen erradiografia zehatza egiten du. Txosten horren inguruan, hilaren 7an, mahai-ingurua izan zen teknikariekin eta, ondoren, talde-lanen saio bat egin zen, lurraldeetako kualifikazio-maila handiko 35 profesional baino gehiago tartean zirela.

Bigarren egunean, talde-dinamika horien emaitzen berri eman da. Besteak beste, txostenak eredu desberdinak ezagutzen laguntzen duela eta lurraldeen arteko lankidetzak bultzatzen duela nabarmentzen da; bestalde, ikusi da lortu nahi den zainketa-ereduak partehartzailea izan behar duela, iraunkorra, ingurunean inskribatua eta pertsonarengan



oinarritua; azkenik, erronka eta proposamen zehatzak planteatzen dira egungo mugak gaindituko dituen zainketa-eredu baterantz aurrera egiteko.

Lau esperientzia praktiko ere aurkeztu dira: Euskadin, Socinnovako Javier Castro-Spilaren eskutik; Nafarroan, Nafarroako Gobernuko María Jesús Arellanoren eskutik; Ipar Euskal Herrian, Pirinio Atlantikoetako Marie-Hélène Gateaux-en eskutik; eta mugaz gaindiko esperientzia azaltzeko, Caser Residencialeko Nerea Manterola izango da. Horien guztien moderazioa Etcharry Formationeko Maia Berasateguiaren esku egon da. Azkenik, Lide Amilibia Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politiketako sailburuordeak bileraren itxiera egin du.

## NOTA INFORMATIVA

# Retos y propuestas para avanzar sobre el modelo de cuidados actual en Euskal Herria

- *Profesionales de las áreas de Bienestar y Políticas Sociales de Euskadi, Navarra e Ipar Euskal Herria plantean ideas concretas para avanzar hacia un modelo que supere las limitaciones actuales*
- *La segunda jornada del II Seminario Transfronterizo sobre Envejecimiento y Atención a la dependencia en los territorios de Euskal Herria, organizado por Eusko Ikaskuntza, supone el primer paso hacia la constitución de un laboratorio interterritorial de análisis e innovación social*

**Donostia-San Sebastián, 21 de mayo de 2021.** Hoy, viernes, 21 de mayo, ha tenido lugar la segunda sesión del II Seminario Transfronterizo [Envejecimiento y atención a la dependencia en los territorios de Euskal Herria](#). La cita se inscribe en el programa de trabajo con el que, desde 2019, Eusko Ikaskuntza promueve el conocimiento de las realidades de la dependencia y los cuidados en Euskadi, Navarra e Ipar Euskal Herria, como paso previo a la constitución de un laboratorio interterritorial de análisis y de innovación social en relación al modelo de Bienestar y políticas públicas.

Durante la primera jornada del Seminario se presentó un análisis pionero sobre los sistemas de atención a las personas mayores dependientes en la Comunidad Autónoma Vasca, la Comunidad Foral de Navarra y el Departamento de Pirineos Atlánticos en el que se integran las comarcas de Ipar Euskal Herria. Elaborado por el equipo científico del programa con apoyo de la Diputación Foral de Gipuzkoa, el informe “[Envejecimiento y atención a la dependencia en los territorios de Euskal Herria](#)” realiza una exhaustiva radiografía de las diferencias y similitudes, retos, limitaciones y potencialidades de los distintos modelos. En torno a dicho informe, en la jornada del pasado día 7 se celebró una mesa redonda con participación de técnicas y técnicos, seguida de una sesión de trabajos en grupo que implicó a más de 35 profesionales de alto nivel de cualificación de los distintos territorios.

En la segunda jornada se han dado a conocer los resultados de estas dinámicas grupales. Entre otros aspectos, se destaca que el informe favorece el conocimiento de los distintos modelos y anima a la



colaboración entre territorios; por otra parte, se constata que el modelo de cuidados deseable ha de ser participado, sostenible, inscrito en el entorno y centrado en la persona; por último, se plantean retos y propuestas concretas para avanzar hacia un modelo de cuidados que supere las limitaciones actuales.

También se han presentado cuatro experiencias prácticas: en Euskadi a cargo de Javier Castro-Spila, de Socinnova; en Navarra por María Jesús Arellano, del Gobierno de Navarra; en Ipar Euskal Herria por parte de Marie-Hélène Gateaux, del Departamento de Pirineos Atlánticos; y como práctica transfronteriza la experiencia de Nerea Manterola, de Caser Residencial; actuando como moderadora Maia Berasategui, de Etcharry Formation. Por último, Lide Amilibia, Viceconsejera de Políticas Sociales del Gobierno Vasco, ha clausurado la sesión.